

aztertzerik eta Haritschelharrenak soilik ikustea proposatu du, gainerakoak beste egun batetarako utzirik. Aita Villasantek E. Erkiagaren eritzia aipatu du, hots, egin den lanaren % 90 ontzat ematen duela. Haritschelharren oharrak ikusi dira, hortaz, eta gainerakoak hurrengo ostiralean, Arrasaten ikustekoak ziren. "Banka Hiztegi" honi Euskaltzaindiak bere oneritzi orokorra ematen dio eta zuzenketak egiteko eskubidea Arrasaten bilduko direnek izango dute.

d) GEORGIAREKIKO HARREMANEZ

Ondoren X. Kintanak bere txostena irakurri du; Georgiako irakasleekin truke-projektu batez. Projektu horren arabera, bidaiaren gastuak bidaltzen dituen Herrialdearen kontura izango lirateke, eta egoitzagastuak, berriz, hartzen dituen Herrialdearen kontura.

e) "AHAL IZAN" ETA "EZIN IZAN":

Imanol Berriatua mintzatu da hurrengo, "ahal izan" eta "Ezin izan" aditzez. Zenbait eritzi jaso dira eta I. Berriatuak esan du galdesail batzu banatuko dituela nahi dutenen artean.

f) MATEMATIKA HIZTEGIA:

Azkenik, K. Santamaria jaunak "Matematika Hiztegia" aurkeztu du, multikopia-aleak euskaltzainen artean banatuz, hauen oharrak jasotzearren. Erdiko bidea hartu du Elhuyar Taldeak hiztegi hau egitean, esan du: hitz berri gehiegi ez greko-latin gehiegirik. Bi hilabeteko ohar-zuzenketa epea jarri da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - XI - 25

Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977.eko azaroaren 25ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, J. Fdez. Setien, S. Garmendia, J. M. Iriondo, I. Laspiur, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, I. Sarasola, P. Xarritton, F. Zabaleta, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak.

Davant, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urrileko batzar agiria onartu da.

a) HARREMANAK:

Hartu diren dirulaguntzen artean, 20.000 pezeta Hondarribiako udalak, 15.000,— Gasteizko URSSA enpresak eta 2.000,— Eufemia Gere-diaga andereak (Nikolas Alzolaren ama).

Liburuzainak hartu direnen berri eman du, Luis M.^a Mujika, *Diccionario General Técnico* (I-Castellano-Vasco); I. Sarasola, *Euskal Hiztegi arauemailea* (bigarren zatia) eta *Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes en vasco*.

A. Irigoyen jaunak Donemiliaga Kukullan gazteleraren omenez egin den batzarraren berri eman du. Batzar hontara gomitatua izan zen euskaltzain burua eta honek izendatu zituen ordezko A. Irigoyen eta J. B. Merino Urrutia euskaltzainak. Han, Alarcos jaunak egin zuen mintzaldiaz mindurik gelditu omen ziren katalanak eta gaillegoak, eta era berean gure ordezkariak ere, Espainian gaztelera ez direnentzat esan zituana.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Urrengo EUSKERA aldizkaria eratzeaz, gai nagusien arteko honako hauek hautatu dira: Hiriart-Urrutyren sarrera hitzaldia eta Davanten erantzuna; A. Tovar-en "Comparaciones tipológicas del euskera"; Sytzar, "Sobre el pasivo vasco"; Txillardegiren "Euskara eta Kaukaso hizkuntzen berezkuntzaz" eta behar bada Orixe eta Oiarzabal jaunen lan bat. Ohi den bezala, Euskaltzaindiaren agiriak eta batzar txostenak, baina hauek sailketa berezia eginaz agertuko dira: 1-Ospaketak, 2-Hiztegia, 3-Izendegia, 4-Fonetika eta Fonología, 5-Gramatika eta 6-Literatura. Batzar agiriak eta Berriak.